

IKASTURTEEN KOORDINAZIORAKO NEURRIAK

Lanordu ez-presentzialak eskatzen dituzten emate edota azterketa partzialak koordinatzeko neurriak zehazten dira jarraian, baita ikasbidaiei daten koordinaziorako ere.

1) Ikaslearen gidak:

- Ikaslearen gidak, ikasgai horretako emateen, azterketa partzialen eta bidaien egutegia argi eta garbi erakutsi beharko du.

2) Egutegia:

- Emate, azterketa partzialen eta bidaien egutegia koordinatzaileari bidaliko zaizkio:
 - + Uztailaren 1a baino lehen 1. lauhilekoko ikasgaien kasuan.
 - + Urtarrilaren 7a baino lehen 2. lauhilekoko ikasgaien kasuan.
- Lauhileko bakoitzeko emate eta azterketen behin betiko egutegia ikaslearen gidan jasota eta publikoki argitaratuta egongo dira:
 - + Uztailaren 30rako 1.lauhilekoko ikasgaientzat.
 - + Urtarrilaren 21erako 2.lauhilekoko ikasgaientzat.

3) Lanordu ez-presentzialak eskatzen dituzten emate edota azterketa partzialen kopurua:

- Aste batean, bi emate edota azterketa partzial egon daitezke gehienez.
- Ikasgai bakoitzak, bere kredituen arabera emate edo azterketa partzial kopuru maximo bat eskatu dezake. Gehienezko emate kopuruak hauek izango dira:

Ikasgaiaren kreditu kopurua	Gehienezko emate edota azterketa partzialak
3 ECTS	3
3,5 ECTS	4
4 ECTS	4
5 ECTS	5
6 ECTS	6
9 ECTS	9

4) Daten aldaketak:

- Ikasturtean zehar, emateetan, azterketa partzialetan, edota bidaietan egiten den edozein data aldaketa, koordinatzaileari igorriko zaio; hauek koordinatzailearen onepena izan beharko dute.

5) Komunikazioa:

- Lauhilekoko emateen, azterketa partzialen eta bidaien egutegi taula Arkitektura Eskolako webgunean ikusgai egongo da ikasleentzat ikaskurte hasieran. Ikasturteko koordinatzaileak taula gaurkotu du aldaketa bat dagoen bakoitzean.

6) Koordinazioa:

- Lauhileko bakoitzean bi koordinazio bilera egongo dira gutxienez: 1) lehenengo astean; eta 2) lauhilekoa amaitu ondoren. Koordinazio bilera hauek, presentzialki zein modu birtualean egin ahal izango dira. Koordinazio bileratan, ikasturteko koordinatzaileaz gain, ikasgai bakoitzeko ordezkari bat egongo da gutxienez.
- Ikasturteko koordinatzaileak, lauhileko bakoitzeko gutxienez bilera bat edukiko du ikasturte horretako ikasle ordezkariekin.

7) Zuzendaritza eta koordinatzaileak:

- Zuzendaritza taldeak ikasturteko koordinatzaileak izendatuko ditu, baita graduko koordinatzailea ere.
- Graduko koordinatzaileak, Graduko Zuzendariordeak eta Zuzendariak, Koordinazio Komisia osatuko dute. Komisia honek ziurtatuko du, koordinazio neurriak betetzen direla.
- Koordinazio neurriak betetzen ez dituen irakasleak, Zuzendaritzaren informe negatiboa jasoko du.